

Errege Magoek eskualdeko herriak bisitatu dituzte gauean

HAURREKIN ▶ Kalez kale ibili ziren zain zeuden haurrak agurtuz eta bere eskariak entzunez

IRURA ▶ Udalak antolatutako jaiotza lehiaketako sariak banatu zituzten atzo haurren artean ▶ 2-3



Errege Magoak Tolosako lurreamendi egoitzan, bertan bildutako haur eta helduez inguratuta atzo arratsaldean. IMANOL GARCIA

TOLOSA ▶

Arraun erakustaldia igande eguerdian

Hamar batel ariko dira Oria ibaian, prestaketa gisa ▶ 5

TOLOSA ▶



LEIRE MONTES

Olaizola II.a-Otxandorena irabazle Beotibarren

Partida lehiatuan 22-19 irabazi zieten Irujo-Goñi III.ari ▶ 4

IBARRA ▶

Itxaropentsu ageri da Lauburu ▶ 6

TOLOSA ▶

Hirugarren gradua eman dio Espainiako Espetxe Zaintzak Rodriguez Galindo jeneral ohiari

«Osasun arrazoiak» eta egindako «delitu larriak» aspaldikoak izatea argudiatu du; 75 urteko kartzela zigorra zuen ▶ 5



Enrique Rodriguez Galindo. HITZA

ERREGE BEZPERA ▶

Errege Magoak bisitari

Bai Tolosaldean bai Leitzaldean Errege Magoak hainbat herritako kaleetan zehar ibili ziren, zain zeuden haurrak agurtuz eta bere eskariei entzunez

O. ESKITXABEL/
I. GARCIA



Tolosa. Santa Klaran eskaintza egin eta gero, erdialdera abiatu ziren Erregeak, bidean zeuden haurrei agurtuz. OLAIA ESKITXABEL



Leiza. Jaiotza bizidunaren aurrean abesbatzak bere kanta eskaini zizkien Errege Magoei, atzo arratsaldean. JAIONE ASTIBIA

Gutuna idatzi arren, eskatutako opariaren berri zuzenean ematea izaten dute gustuko txikienek; horretarako aukerarik ez dute galtzen. Gurasoei esku-tik heldu eta Erregeak ikusteko hitzorduetara agertzen dira. Atzo ere ez zuten huts egin.

Tolosan, Txinparta elkarteko kideak lagun zituztela, Errege Magoak goiz guztian zehar zaharren egoitza desberdinetan ibili ziren opariak banatzen. Arratsalde partean, lurramendi zaharren egoitza bisitatu zuten. Haur mordoa joan zen Errege Magoak ikustera eta hauek lurramendiko kaperan hartu zituzten banaka. Haurrek beren eskariak egin zizkieten, Errege Magoen magalean eserita egoteak ematen zizkieten kirioak gainditu ondoren. Egunari argiak joaterakoan, Errege Magoak herriko kaleetatik ibili ziren. Leidorren bukatu zuten kabalgata eta bertan hartu zituzten haurren eskariak.

Kamioi baten gainean ibili ziren Errege Magoak Amezketan; Gazte Taldeko kideez lagunduta bisitatu zituzten herriko baserriak eta etxeak. Ugartetik abiatu eta herrirako bidea egin zuten, geldialditxo bakoitzean, irribarrea ahoan, goxokiak banatuz.

Leitzara, berriz, zaldiz iritsi ziren hiru Erregeak; 18:30ean iritsi ziren geltokira eta bertan zain zituzten pajeak. Opariak, gurdi handi batetan zeramatzaten. Herriko bidegurutzan ohiko geldialdia egin zuten; bertan, jaiotza biziduna jarri zuten eta Meltxorrek, Baltasarrrek eta Gasparrek eskaintza egin zioten Jesus haurtxoari. Ondoren, zaldi gainean jarri eta pazarako bidea hartu zuten. Bertan, herriko eta inguruko haurrak ezagutzeko tartea izan zuten Erregeek. Izan ere, Leitzaldean Leiza da kabalgata egiten den herri bakarra eta izugarritzko jendetza biltzen da. Lan ugari izan zuten, beraz, atzo Erregeek hainbeste haurren eskaerak entzuten. Denekin kunplitu ondoren, Iruñea aldera abiatu ziren.

Berastegin, Areson, Berrobin, Iruran, Anoetan, Alegian... ere jaso zuten Errege Magoen bisita.

Alegian, kabalgatatz gain, goizean goizetik somatzen zen ezohiko mugimendua. Kultur Etxearen kanpoaldean bildu ziren 11:30ean, herriko dantzariak, soinu-joleak, trikitilariak, gurasoak... Herriko kaleak zeharkatu zituzten kalejiran;



Alegia. Kultur Ebetik abiatu ziren herriko dantzariak kalejiran, aurretik trikitalariak eta atzetik soinu-joleak zituztela; goizean zehar, emanaldiak eskaini zituzten. O.ESKIXABEL



Amezket. Errege Magoek Gazte Taldekoen laguntza izan zuten; Ugartetik abiatu eta etxex-etxe Gabon eskean aritu ziren. Iluntze aldera iritsi ziren herrira. O.ESKIXABEL



Tolosa. Atzo arratsaldean, lurramendi egoitzan izan ziren Erregeak; haurrei eta adineko pertsoneri opariak eta goxokiak banatu zituzten. IMANOL GARCIA

auzo bakoitzean geldialditxoak egin eta emanaldia eskaini zuten. Larraitz auzoko bi enparantzetan, Kalebeheran eta, amaitzeko, udaletxe aurrean. Errege bezperan, arratsaldez atera ohi izan dira dantzariak; aurretik, goizez ateratzeko proposamena egin dute irakasleek «dantzari gaztetxoak motibatuzko baliagarria izan daitekeelakoan». Saioa amaitu ondoren, bazkaltzera joan ziren dantzariak, irakasleak, trikitalariak eta soinu-joleak.

Atzo Erregeak ikusteko aukerarik izan ez zutenak Zizurkil Gora joan daitezke gaur. Izan ere, Errege Magoak San Millango elizan 11:00etako mezan izango dira eta ondoren pilotaleku txikian opariak banatu dituzte bertara joaten diren haurrei. Ondoren, Fraisoron dauden haurrak bisitatzea joango dira.

Haurrek egindako jaiotzak

Irurako haurrek jaiotzak egiten jardun dute Eguberrietan eta atzo banatu ziren Udalak antolatutako lehiaketaren sariak

I. GARCIA

Irurako haurrak jaiotzak egiten jardun dute Eguberrietan Udalak antolatu duen lehiaketan parte hartzeko eta atzo denak ikusgai zeuden elizaren arkupean. Guztira hamaika jaiotza egin dituzte eta hogeitazortzi haurrek hartu dute parte. Parte-hartzaileak lagun batetik hirura bitartean izan behar zuten. Ikustekoa zen haurrek hartu duten lana jaiotza horiek egiterakoan.

Hiru mailatan banatu dute lehiaketa. Hiru eta sei urte bi-



Jaiotza lehiaketan sari nagusiak jaso zituzten haurrak. I. GARCIA

tartekoak, txikiak; seitek berderatzi urte bitartekoak, ertainak eta hamar eta hamasei urte bitartekoak, handienak. Txikiak artean, Arkaitz Zigandak eraman zuen saria. Ertainenak, bi sari banatu ziren: lehenengoa Josune Etxeberria, Xabier Artola eta Beñat Sainz hirukotearentzat; bigarrena Eneko Zigandarentzat. Handien mailan ere bi sari banatu ziren: lehenengoa Mikel Mateosentzat eta bigarrena Igone eta Asier Gutierrezentzat.

Sariak jaso zituztenek opari ezberdinak jaso zituzten: puzzleak, CDak jasotzeko poltsa, bideo-jolasak, bideoak, ... Eta parte-hartzaile guztientzat eskolarako materiala banatu zituen Udalak.

BINAKAKO PILOTA TXAPELKETA ▶



Goñi III.a, Obxandorena, Irujo eta Olaizola II.a; gogor borrokatu ziren laurak atzo, Beotibarren. LEIRE MONTES

Eskuz Binakako Txapelketako lehena, lehiatua eta bizia

Olaizola II.a-Otxandorenak 19-22 irabazi zieten Martinez de Irujori-Goñi III.ari, jendez betetako Beotibar pilotalekuan

LEIRE MONTES

Jendetza espero zuten antolatzaileek atzo, eta halaxe gertatu zen. Ikusmin handia sortu zuen Martinez de Irujo-Goñi III.aren eta Olaizola II.a-Otxandorenaren arteko partidak, Eskuz Binakako Txapelketako lehenak. Goizerako sarrerak erosteko ilarak baziren Beotibarreko lehiatilan, eta arratsaldean erruz bete zen frontoia. Gustura irten ziren ikusleak pilotalekutik, ikuskizun aparta eskaini baitzuten pilotariak. 19-22 irabazi zieten Olaizola II.ak eta Otxandorenak Martinez de Irujori eta Fernando Gofiiri.

Urdin adierazi zuen leoncastillok, eta Olaizola II.aren sakearekin ekin zioten partidari. Haienez, urdinentzat, izan ziren lehen tantoak: 0-7 jarri ziren aurretik. Orduan hasi ziren gorriak erantzuten, beren tantoekin baino, aurkariak (Otxandorena, batez ere) hutsei esker. 6-9 irakurtzen zen jada markagailuan.

Zoramena eserlekuetan

Aimar dejada egiten saiatu, Martinez de Irujoek erantzun; orain Iberokoaren dejada, eta Goizuetakoak ezin pilota altxatu. Hurrengo tantoan alderantziz: Olaizola II.aren errematea, eta Irujo ezin iritsi. Batetik zein bestetik iristen ziren tantoak. Markagailuan 13-14 irakurtzen zenean, Irujoren dejada bikainak eragin zuen jendearen zoramena Beotibarren. Ez zen gutxiagorako izan hurrengo tantokoa: Olaizola II.aren dejadak eserlekutik altxa zituen pilota-zaleak.

Olaizola II.aren eta Martinez de Irujoren arteko jokoak eragin zituen zaleen oihi eta txaloguehien. Pilota aurrealdean zenean sortzen zuten jokorik bizia, baina Otxandorena eta

Goñi III.a ere ondo aritu ziren atzo.

Partidaren azken txanpan txandaka igo ziren tantoak markagailura; baina gorriek ez zuten lortu partida berdintzea, eta Olaizola II.a eta Otxandorena joan ziren aurretik partida guztian. 19-20 zihoazenean egin zituzten bi tanto jarraian urdinek. Aimarrek pilota txokora bidaliz egin zuen azkeneko tantoa: 19-22koa.

Ordu eta erdi pasatxo iraun zuen Eskuz Binakako Txapelketako lehen partidak. Parekotasun handiko eta emozio bizi-konplexuak izan zen atzokoa. Gogorra eta lehiatua. Txapelketako bikoterik indartsuenak direla argi utzi zuten pilotariak Beotibarren. Dena den, aukeratutako pilotak ahulak zirela aipatu zuten zenbait zalek, eta Martinez de Irujo ere haserre zen.

Bestalde, atzoko jaialdiko lehendabiziko partidari, Esainek eta Peñagarikanok 22-20 irabazi zieten Kokari eta Pinedori. Erredakzio hau itxerakoan, berriaz, jokoan zen arratsaldeko azkeneko partida: Saralegi-Begino eta Mendizabal-Albizuri bikoteak aurrez aurre jarri zituena.

GIZARTEA ▶

7.500 euro, nazioarteko elkartasun proiektuetara

Tolosako Udalak 300 euro inguruko diru laguntza emango die herriko zenbait talderi



Saharako haurrak, Aaiun-eko kanpamenduan. IÑIGO TERRADILLOS

L. MONTES

7.500 euro inguru bideratuko ditu Udalak nazioarteko elkartasun proiektuetara. Tolosan bertan aritzen diren zenbait Gobernu Kanpoko Erakundeentzat (GKE) 300 euroko partidak aurreikusitu ditu Udalak. Tolosaldea Sahararekin elkartari, bestalde, 935,95 euroko aparteko diru laguntza emango dio.

Hauexek dira, hain zuzen ere, diru laguntzak jasoko dituzten herriko elkarteak: Amigos de Cuba y Palante, Irazki elkarte kulturaren, Palestinarekin Elkartasuna, Tolosaldea Sahararekin, eta Santa Maria parrokiako Misio Taldea.

Tolosaldea Sahararekin elkartek jasoko duen beste diru laguntza udan egiten duten Saharako festaren defizitari aurre egiteko eman du Udalak. Tolosaldea Udala Saharako herriarekin senidetuta dago aspalditik. Fronte Polarioaren bidez lortutako hitzarmen bati esker, saharako haurrak udako hilabeteak pasatzera etortzen dira Tolosara. Euskal Herriko kulturaren eta bizimoduaren berri ematen eta elkarbizitza bultzatzen dute, modu horretan. Gainera, Tolosan eta eskualdean Saharako herriaren egoerari buruz informatu eta jendea sentsibilizatu nahi dute, era berean. Azterketa medikua ere egiten zaie haurrei, ahal den arlo guztietan laguntza emateko asmoz.

Euskal Fondoak

Euskal Fondoaren bidez jasotako diruatik, 5.098 euro bideratuko ditu Udalak El Salvadorren martxan den proiektu ba-

DIRU LAGUNTZAK ▶

7.500 eurotik gora bideratuko ditu Udalak nazioarteko elkartasun proiektuetara. Herriko zenbait taldek jasoko dute diru laguntza. Eta Euskal Fondoko partidatik, 5.000 bat euro El Salvadorreko proiektu bat finantziatzeko izango dira.

Elkartek.

- ▶ Amigos de Cuba y Palante (300,51 euro).
- ▶ Irazki elkarte kulturaren (300,51 euro).
- ▶ Palestinarekin (300,51 euro).
- ▶ Tolosaldea Sahararekin (300,51 euro).
- ▶ Santa Maria parrokiako Misio Taldea (300,51 euro).

Bestelako diru laguntza.

935,95 euro Tolosaldea Sahararekin elkartari, udako Saharako festako defizitari aurre egiteko.

Euskal Fondoak.

Partida horretatik, El Salvadorreko Segundo Montes komunitatea edateko uraz hornitzeko proiektua finantziatzeko 5.098 euro.

tera. Lurralde horretako Segundo Montes izeneko komunitatean biztanleria edateko uraz hornitzeko proiektua ari dira aurrera eramaten, eta diru kopuru hori lan horiek finantziatzeko balioko du.

Tolosako Udalak onartu berri dituen 2005eko aurrekontuetan ere nazioarteko elkartasun proiektuek badute tokirik. Hain zuzen ere, nazioarteko laguntzek %9ko igoera izango dute aurtan.

URRARRILAREN 7AN ZABALDUKO DUGU

Ergoiena auzoa Tel.: 943 18 01 19
20211 ATAUN

'LASA-ZABALA AUZIA' ▶

«Osasun arrazoiak direla eta», hirugarren gradua eman dio Espainiako Espetxe Zaintzak Galindori

Guardia Zibileko jeneral ohiak egindako delituak larriak bai, baina aspaldi egindakoak direla dio

I. ETXEBESTE

«Bere osasun egoerak hala behartuta», Guardia Zibileko jeneral ohi Enrique Rodríguez Galindori hirugarren gradua ematea erabaki du Espainiako Espetxe Zaintza Zentraleko epaile Jose Luis Castrok. Era berean, Rodríguez Galindok orain arte kartzelan izan duen jarrera goraiatu du Castrok, esanez, kartzelako bizitzara «oso ondo» moldatu dela, eta «garbiketa lanetan parte har-

tzen» zuela: «Beti zegoen lan horretan edonori laguntzeko prest, eta ez du sekula istilurik sortu».

Enrique Rodríguez Galindori leporatzen zaizkion delituak «larriak» direla onartu arren, duela 20 urte baino gehiago egindakoak direla aintzat hartu behar dela irizten dio Castrok, eta gaineratu du: «Kartzelako agintariek horrelako delituri berriz ere egiteko arriskurik ez dagoela uste dute; espetxetik ateratzen denean fa-

milia bat izango du zain, eta horrek egonkortasuna emango dio». Hala eta guztiz ere, Galindori hirugarren gradua emateko arrazoiak haren osasun egoera «larria» dela dio Castrok: «Ez da ahaztu behar 67 urte dituen gizaseme baten aurrean gaudela. 70 urtetik gertu egoteak bere kontrako zigorra murriztea ahalbidetzen du».

1983an, ETAko ustezko kide Joxi Lasa eta Joxean Zabala tolosarren bahiketa, tortura eta erahilketan parte hartzeagatik

epaitu zuten Rodríguez Galindo, eta 75 urteko espetxe zigorra ezarri zion Espainiako Auzitegi Nazionalak. Toledoko Ocaña II kartzelan sartu zuten, eta bere abokatuek sarritan eska-tu zuten hirugarren gradua. Hala ere, Espainiako Espetxe Zaintzako Zuzendaritza Orokorak deuseztatu egin zuen abokatuen eskaera, egindako delituak «oso larriak» zirelakoan.

2004ko urriaz geroztik etxean ari zen Galindo zigorra betetzen, «bihotzeko gaitz larriari



Enrique Rodríguez Galindo. HITZA

aurre egiteko kartzelako bizi-baldintzak ez zirelako egokienak». Jeneral ohiaren egoera pertsonala ez da, beraz, askorik aldatuko ordutik hona.

ARRAUNA ▶

Igandean, 10 batel eta 50 arraunlari, Oria ibaiko uretan

Erakustaldiarekin batera, lehiaketa egingo dute, 12:00etan

IRATXE ETXEBESTE

Abenduaren 26an ziren egitekoa hasieran, baina eguraldiak nahi baino oztopo gehiago jarri zizkien Zerkausiaren azpialdean aste bat bai eta hurrengo ere bai lanean aritzen direnei, eta arraun erakustaldia atzeratu egin behar izan zuten azkenean. Hamar tripulaziotan banatuta, igandean lehiatuko dira 50 arraunlari Oria ibaiko uretan, 12:00etan hasita.

Erakustaldia egiteko, erlojuaren aurkako lehia egingo dute. Batelak binaka ariko dira arraunean Nafarroako Zubia-aren eta Zubi Berriaren arteko eremuan, eta lau ziabogako lana burutu beharko dute. Bi denbora onenak egiten dituzten batelek elkarren aurka jokatuko dute finala, azkenik.

«Ikusten duzuenek, ohiturak berreskuratzen bakarrik ez, haiek indartzen ere ari gara eskualdeko arraunzaleak. Iazko sanjoanetan bezala, erakustaldia egingo dugu etzi ere, eta ekimen horren helburu, asmo eta itxaropen guztia 2005eko San Joan jaietan batel estropadak egitea da. Bai, garai batean bezala, batelak araudiaren araberako lehiari, garai bateko

eremuko neurri berberekin, Oria ibaian, Tolosan!».

Sanjoanetako lehiari begira taldeak osatzen ari zirela ikusita, eta prestakuntza gero eta seriotasun handiagoa hartzen ari direla ikusirik, neguko erakustaldia antolatzea erabaki dute ekimenaren sustatzaileek. Denetarikoa jendea ariko da arraunean: bolada zaharrea jardundako beterranoak; batatz beste, ikasten eta hobetzen urtebete daramaten bolada berriko gazteak; neska —«kopuru esanguratsua da neskena, ikasten eta hobekuntza bolada berria sartu diren hamar lagun ariko direlako erakustaldian»— eta 14-16 urte inguruko gazteak.

Kontuak kontu, esan liteke gero eta indar handiagoa hartzen ari dela arrauna Tolosaldean. «Berrindartzen ari dela esan beharko genuke, arraunarekiko zaletasuna aspaldikoa baita inguru honetan». Horren aurrean, arraun elkarre bat sortzeko asmotan dabilta astero-astero Oria ibaiko uretan hara eta hona bateletan ibiltzen direnak. Arraun federazioan izena eman, eta aurrerantzean izen horrekin jardungo dute bertako arraunlariek.



Arraunlariak, sanjoanetan. L. M.

«Tolosaldeko Arraun Kluba (TAK) izenean ariko gara aurrerantzean arraunlari guztiok».

«Babesleak ere hasi zaizkigu gerturatzen: berriki, Climaxvic enpresak fibrazko Amilibia batel berri-berria jarri du arraunlarion eskura: batel zuria kanpoaldetik eta urdina kanpotik eta barrutik». Udalarekin duten harremana ere «etengabe-koa» omen da: «Mahai gainean dauden gaiak dira Zerkausiaren zaharberritze proiektuan azpialdea arraunerako egokitzea, presa puzgarri baterako azpiegitura eraikitzea... Haiek arraunarekiko duten ilusioak bultzatzen ematen digu arraunlariorik».

ARRAUN ERAKUSTALDIA ORIA IBAIAN ▶

Igandean batelen erakustaldi saioak egingo dituzte Oria ibaian astero-astero arraunean aritzen diren hamar tripulazioetako 50 arraunlariak. Parte-hartzaile guztiak eskualdekoak dira.

TTANTTO

Patroia. Koteli.
Arraunlariak. Izarne, Idurre, Eli eta Irati.
Berezitasuna. Nesken bateletako bat; gehienak tolosarrak dira.

D. ORMAZABAL

Patroia. Navas.
Arraunlariak. Iban, Igor, Otero eta Esnaola.
Berezitasuna. Bolada berriko jende gaztea.

JON

Patroia. Gago.
Arraunlariak. Tardio, Txelis, Fresneda eta Koteli.
Berezitasuna. Bolada zaharreko jendea; sasoioko beterranoak.

INDARRA

Patroia. Ruso.
Arraunlariak. Axier, Igor, Gari eta Yumas.
Berezitasuna. Bolada berriko jende gaztea. Guztiak Ibarakoak dira.

AMORRAIAK

Patroia. Koteli.
Arraunlariak. Sergio, Rojo,

Felipe eta Eriz.
Berezitasuna. Bolada berriko jende gaztea.

GURUTZE

Patroia. Ruso.
Arraunlariak. Oihana, Laida, Ixiar eta Nekane.
Berezitasuna. Nesken bateletako bat. Gehienak ibartarrak dira.

BELARRIS

Patroia. Gago.
Arraunlariak. Ioana, Larra, Marko eta Irati.
Berezitasuna. Gazteboenak, beterranoek lagunduta.

ARRAUNZALEAK

Patroia. Navas.
Arraunlariak. Asier, Julian, Julien eta Kebin.
Berezitasuna. Arraunlari guztien artean gazteboenak, beterranoek lagunduta.

BALANTX

Patroia. Maxi.
Arraunlariak. Braulio, Perea, Elduaian eta Ortiz.
Berezitasuna. Beterranoen eta bolada berriko gazteen nahasketa.

BONBERENEA

Patroia. Gaxpi.
Arraunlariak. Gotzon, Iker, Oier eta Eñaut.
Berezitasuna. Bolada berriko jende gazteak osatzen du tripulazio hori.

LIZARTZA ▶

Bilboko manifestaziora joateko autobusa

Etzi Bilbon *Euskal presoak Euskal Herrira* lelopean egingo den manifestazio nazionalera joateko autobusa antolatu dute Lizartzatik. Autobusa Joxe Mariren aparkalekutik aterako da larunbatean 15:00etan. Etxerat-ek deitutako manifestazioa da eta Bilbon, Kasillatik aterako da 17:00etan. Bestalde, Lizartzako herritar batzuk HITZARI adierazi diotenez, atzo goizeko 11:00ak inguruan Guardia Zibila herriko plaza aritu zen euskal presoan aldeko banderolak itsatsita zeuden lekuetatik kentzen eta gertatutakoa salatu nahi izan dute publikoki.

ADUNA ▶

Uztartza aterpe-jatetxea berriro zabalik

Epe batean itxita egon ondoren, Uztartza aterpe-jatetxe-ko arduradun berriek ostira-lean, hilak 14, zabalduko dituztela berriro atek jakinarazi nahi dute.

VILLABONA ▶

Kontzertuak bihar gauean Gaztetxean

Bihar gauean Villabonako Gaztetxean musikaz gozatze-ko aukera izango dute bertara hurbiltzen direnek. Hain zuzen ere, Split 77, Materia eta Despericio taldeen musika izango da entzungai 22:30etik aurrera.

IBARRA ▶ KIROLAK

Aurrera begira, itxaropentsu ageri da Lauburu kirol elkarte

Nagusiek maila mantentzea espero dute; erakundeen, komunikabideen eta jarraitzaileen laguntza eskatu dute



2004-2005 denboraldiko Ibarra areto futbol taldea. I. TERRADILLOS

IÑIGO TERRADILLOS

2005 urtea hasi da eta Ibarra areto futbol taldeak erronka garrantzitsuari aurre egin behar dio orain.

Mailaz jaistea eragin zuten gertaeren ondoren, hau da, arazo ekonomikoan ondorioz kategoriaz jaitsi beharra izan eta gero, Lauburu elkarteak behe-behetik berriro hasita aurrera ekitea erabaki zuen. Alderdi ekonomikoan defizit handia zegoen, eta hau konpondu beharra zegoen ahalik eta azkarren, eta bestalde, kirolari dagokionez, taldea au-

rrera atera beharra zegoen elkartearen egoera kontuan izanda.

Alderdi ekonomikoa

Taldearen egoera ekonomiko-ari buruz, 2004aren azken hila-beteak oso gogorak izan direla aipatu behar da. Hala ere, gaur egun, egoera oraindik ere ona ez den arren, diru laguntzak iristen ari dira eta egin diren hitzarmenen arabera, badirudi etorkizunak beste itxura bat izango duela. Elkarteko zuzendariak lan handia egin dute babesleak lortzen eta hitz

emandakoa betetzea posible bada, defizitarekin amaitzea lortuko litzateke, denboraldi honetan ez bada, hurrengoan.

Babesleengandik lortu daitekeena handitu daitekeela diote elkartekoek, eta orduan, Zilarrezko ligara bueltatzea bezelako helburuetan pentsatzen hasi liteke.

Kirol arloan

Harrobia aintzat hartzea erabaki zen nagusien kirol taldea osatzerakoan. Une honetan, lehenengo buelta amaitzeko 2 partida geratzen direnean zailtasunekin ari da taldea, baina maila mantentzea espero da denboraldi amaieran.

Jubenilen taldean, bestelakoa da egoera; lehenengo postuan aurkitzen da eta bigarrenari bederatzi puntuko aldea ateratzen dio, partida bakoitzeko batz beste 8 gol sartu dituztelarik.

Hirugarren taldea ere emaitza onak ari da lortzen eta goiko postuetan dago kokaturik.

Itxaropentsu dago Lauburu kirol elkarte. Lan handia egin ari da, eta etekinak, pixkanaka bada ere, ari dira ikusten. Hori bai, guztien laguntza behar dute orain, erakundeena, komunikabideena, eskolena eta jarraitzaileena.

GUTUN@K ▶

**Utzi bakean duda-mudako formak**

Ibarrako San Ignazio auzoko Jai Batzordetik hamabi elkar-tek adierazitako bigarren puntuari erantzun nahi diogu:

A) Esaten duzuenaren arabera, badirudi alkateak jaiak oparitu dizkigula. Zergatik jarri behar dituzue zalantzan gure ondo-egite desinteresa-tua, gure festa hauen kitape-na eta gure alkatearen izen ona?

Guk dakigula, orain arte ez du inork zalantzan jarri zuen ondo egitea, baina zuek gainerakoena jarri duzue zalantzan.

Nomala den moduan gastu guztiak justifikatu ditugu eta ez digu inork ezer oparitu.

B) Festak egiteko eskaera kultur arloari dagokion ohi-ko bideetatik egin zen (2005ean gauza bera egingo dugu) eta utz ditugun duda-mudako formak bakean.

Gaiaren arazoa elkarte horietako pertsona batzuegan dago gure ustez, izan ere, pertsona horiek beren gauza pertsonalekin elkarte horietako kideak herrestan eramanen dituzte eta ziur gaude gainera kide horiek herriare-kiko lan desinteresatua egi-ten dutela.

Utz dezagun festa bakean eta has gaitezen ondo urtea. Jende horiek Ibarren hobe beharrerako lanean hasi zirenerako guk urteak generamatzan herriarentzako jarduera onuragarriak egi-ten eta gainerakoak zirikatuta gabe gainera.

Urte berri on!

SAN IGNAZIO AUZOKO
JAI BATZORDEA • IBARRA

hitza

lagunen
txokoa

▶ HITZAREN HARPIDEDUN
TXARTELAREKIN %5*-eko
BEHERAPENA izango duzu
zure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

▶ DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
o s a g a i a k
korreo,11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

honetekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 943 65 27 46

**SHANTY
KIROLAK**

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GIZARTEA ▶

Ganbaratik salara

Babesturiko Giza-laneko kideek, Miren Fagoaga erakusle dutela, tresna zaharrak berreskuratu dituzte

JAIONE ASTIBIA

Gure etxe, baserri, borda, txokoetan, edo «zokoe-tan», zenbat tresna ote daude, hauts tartean galduta, pipiak jaten hartuak, hor dauden ere ahaztuta edo batean honera ekarri eta bestean hira eraman. «Trasteak» esaten zale.

Baina pixka bat erreparatu gero, lastima ederra izanen litzateke, txikitu eta harrika tiratzea ere, hara, etxe askotan egin izan den moduan, leku faltagatik, edo momentuan eskuarte zuten altxorraz ez jabetu izanagatik, edo... Gaur egun, ordea, estimazio handia izaten dute halako tresna hauek eta, asko eta asko, museoetan jasota daude, erakusketan etnografiko mota desberdinak egiten dira han eta hemen, eta gutxi-asko dekoraziorako tresna ere bihurtu dira, batzutan. Gauza, bistara ateratzea litzateke. Finean, gure guraso edota aiton-amonen garaiez ari gara, gure ez hain lehengo bizimoduaren lekuko izan eta haren adierazle dira, beraz:

gure ondare historikoaren zati garrantzitsu.

Horrela, Leitzako udaletxeko ganbaran ere, aitatutako denboretako bizimoduan erabiltzen zituzten hainbat eta hainbat tresna daude jasota, batzuk besteak baino kontserbazio-egoera hobean. Izan ere, duela urte pareta, Gizarzte Zerbitzuko Babesturiko Giza-laneko kideek, ordukoek, han dauden pieza guztiak banaka-banaka garbitu eta behar zuten guztiei, zurezkoak ia denak, pipien aurkako tratamendua eman zieten, sailkapena egiten zuten bitartean.

Orain, haietako zenbait pieza ikusgai jarri dituzte udaletxeko eskailera-tranpetan.

Lan honetan, esan bezala, Babesturiko Giza-laneko kideak aritu dira, oraingoak. Hiru lagun. Eta, lehengoek eta hauek ere, lan honetarako erakusle eta arduradun, Miren Fagoaga izan dute. Altxorien berreskurapenean aditua da bera eta horrelako tresna hauek «altxor preziatu» dira beretzat, eta hauek «garbitu» eta «nonbait jartzea, jendeak



Miren Fagoagak erakutsi zizkigun tresna batzuk. JAIONE ASTIBIA

ikusi dituzten, jakin dezaten hor daudela» oso lan garrantzitsutzat jotzen du, «nahitanahiez egin beharrekoa», zioen, HITZA berarekin egon zenean.

Iazko urrian hasi ziren lan honetan: tresnarik politentsuenak eta erraz erabiltzeko modukoak aukeratu eta garbitu egin zituzten aurrena eta gero, olio eman. Tresna pare bat edo, osatu ere egin omen zituzten, baina ia denak zeuden bezala utzi dituzte: «Egunen batean leku egokirean batean erakusgai jartzen direnerako, gutxienez orain dauden bezala mantentzea da helburu, gehiago ondatu gabe. Ez berritzea,

baizik eta beren jatorrizko materialarekin, ordurako kontserbatzea», adierazi zuen.

Beretzat eta lanean aritu diren kideentzat ere, oso aberasgarri suertatu omen da ekimena. «Batak, bere sorterrian, Ekuadorren oraindik ere horrelako tresna erabiltzen dutela, halako izenekin eta poza hartzen zuten; besteak, Nafarroako Erriberakoa izaki, beste modu batekoa eta izena ere bestelakoa; hemengoak, baserrian hartarako erabiltzen zutela... Azkenean, tresna hauen balioa ezpairik gabekoa dela frogatu dugun», zioen, honekin aurrera jarraitzeko gogo biziz.

LEITZA ▶ KULTURA

Perkusio ikastaroa doan gazte eta helduentzat

Izena ibeltzaren 10erako eman behar da Maimur liburudendan; 30 leku daude

J. ASTIBIA

Perkusio ikastaroa antolatuta dute Amazabal Guraso Elkar-teak, Kultur Taldeak eta Gizarte Zerbitzuko Prebentzio programak elkarrekin, 16 urtetik gorako gazte eta helduentzat, eta doan.

Ikastaroa bi larunbatetan emanen dute: aurreneko saioa ibeltzaren 15ean, arratsalde, 17:00etan hasita, eta ibeltzaren 22an bigarrean, goizez, 11:00tan hasita. Ikastaroan parte hartzeko, nahikoa da Maimur liburudendan izena

ematea, ibeltzaren 10a baino lehenago. Jakinarazi dutenez, «aldi berean, bi ikastaro izanen dira, bata Amazabal Institututuek ikasleentzat eta bestea herriari nahi duen guztiarentzat, beti ere 16 urtetik gora izanez gero», zioten, lekua 30 lagunentzat izango litzatekeelarik. «Makilak eta danbor papera egiten duen zerbaitek», norberak eraman behar omen ditu.

Azken egunean, 13:00etan, ikastaroan parte hartu duten guztiak, herriari barrena «batukada» eskainiko dutela ere eman dute jakitera.

GIZARTEA ▶

III. Argazki Lehiaketa abian da dagonekoz

Mendia eta natura da gaia eta lanak, hilaren 15a baino lehenago aurkeztu behar dira

J. ASTIBIA

Mendibil mendi taldeak antolatuta du hirugarren aldiz, argazki lehiaketa eta parte hartu nahi dutenek, lanak hil honen 15erako Maimur edo Astiz liburudendetan utzi beharko dituzte.

Mendia eta natura gai izanik, parte-hartzaile bakoitzak 20 x 30 tamainuko 3 argazki aurkez ditzake gehienez eta gutun-azal handi baten barruan egin behar ere, azalean ezizena jarrita. Hortxe bertan sartu beharko da ere, gutun-

azal tikiago bat, azalean ezizena bera agerian duena, parte-hartzailearen izen-abizenak eta telefono zenbakia barruan dituela.

Eskualdean bizi diren guztiak dago irekita lehiaketa eta behin lanak aurkezteko epea bukatuta, antolatzaileek beraien emanen dute ezagutzera, saridunak erabakitzeko irizpideen eta prozeduraren berri. Izan ere sariak oso erakargarriak baitira: aurreneko saria, 100 eurokoa izanen da eta bigarrean, 60 eurokoa. Beraz, atera argazkiak!!

TELEFONOAK ▶

LARRIALDIK

▶ 112

Alegialdea. Osasun z.: 653212
Anoetaldia. Medikua: 65 23 39
Asteasu. Medikua: 69 24 23
Berastegi-Elduain. 68 33 61
Bidegoian. Medikua: 68 11 34
Ibarraldia. Osasun etx.: 672411
Ikaztegieta. Medikua: 65 33 29
Irura. Osasun zentroa: 69 07 20
Leitza. Osasun z.: 948 510800
Lizartza. Medikua: 68 20 77
Tolosa.
 ▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111
 ▶ San Esteban: 00 68 00
 ▶ Gernikako arbola: 00 69 00
 ▶ Asunzion klinika 67 57 99 - 67 53 90 (larrialdiak)
 ▶ Udaltzaingoa: 67 58 58
 ▶ DYA: 67 25 36
 ▶ Gurutze Gorria: 67 48 88
 ▶ Ertzaintza: 53 88 20
Villabona. Anbulat.: 00 69 70
Zizurkil. Aiztondo zerb.: 693930

GARRIAOK

▶ Renfe Tolosa: 65 28 89
 ▶ Donostiako autobusa: 36 17 40
 ▶ Taxia: 67 04 20
 ▶ Taxia (Leitza): 608 873016

EUSKALTEGIAK

▶ Aitzol (Tolosa): 65 10 06
 ▶ Arramele-AEK: 67 12 14
 ▶ Ika (Leitza): 948 61 07 76

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur. Iturrioz. Euskal Herria 3 (Ibarra). 943 67 09 15
 Gimeno. Elbarren 52 (Leitza). 112

TOLOSALDEKO HITZA

Publizitatea. 661 67 88 18.
 tolosaldean_public@tolosaldeko-hitza.info
Tolosa. 687 41 00 82 - 687 41 00 33.
 tolosa@tolosaldeko-hitza.info
Villabona-Aitz. 687 41 00 22.
 villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info
Anoetaldia. 687 41 00 22
 anoetaldia@tolosaldeko-hitza.info
Ibarraldia. 687 41 00 32.
 ibarraldia@tolosaldeko-hitza.info
Alegialdea. 687 41 00 34.
 alegialdea@tolosaldeko-hitza.info
Leitzalde. 687 41 01 18.
 leitzalde@tolosaldeko-hitza.info

iragarki laburrak ▶

LANA

Sukaldaria. Tabernarako sukaldaria behar da, asteburuetan lan egiteko. 943 691 933.
Sukaldaria eta tabernaria. Sukaldaria eta tabernaria behar dira. Deitu 15:00etatik aurrera. 943 682 154.

SALGAI

Baxua. Baxu elektrikoa salgai. 620 15 65 66.

Harpidedunei banatua ▶ 2005eko urtarrilaren 6a, osteguna ▶ III. urtea

'HITZA' LAGUNTZEN
DUTEN ERAKUNDEAK

udalak: Kuartasaketa, Adura, Abotzur, Alege, Alkiza, Alizo, Amerleña, Anorta, Balaran, Bebasanta, Berastegi, Eduain, Herrialde, Ibarra, Itxaspeña, Iturri, Larramendi, Leizola, Lizarza, Oteiza, Tolosa, Villabona, Zuzuki
bestenik: Leizaldekoko Euskara Batzordea

Gipuzkoako
Foru
Aldundia

Eusko
Jauriaritza.
Kultura Saila

GAURKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



beroena

13

hotzena

11

BIHARKO
EGURALDIA

goizez



arratsaldez



ELURRA
ARALARREN



Guardetxe: ez
Albi: ez

Pagomari: ez
Igaratza: ez

HITZA-KO BEZEROEN
ARRETA ZENBAKIA
(zalantzak, harpide egiteko...)

943
30 43 46

AGENDA ▶

DEIALDIK

Tolosa. Laskorain Ikastolaren Merkatu Txikia India eta Saharako eskolen alde. Kultur Etxean 11:00etatik 13:00etara eta 17:00etatik 20:00etara. Gaur da azken eguna.

Tolosa. Meza abesbatza, orkestra eta organoarekin. 11:00etan Santa Maria parrokian.

Tolosa. Tolosaldeko Gurutze Gorria lehen laguntzen ikastaroa antolatuta du urtarrilaren 10etik 22ra. 30 ordu dira, asteleheneratik ostiralera, 19:00etatik 21:00etara, eta larunbatetan 9:00etatik 14:00etara. Informazioa: 943 674888 eta 647 371529.

ERAKUSKETAK

Tolosa. Jose Enrike Ceberioaren margoak Lanbroa tabernan.

Tolosa. Manuel Arretxeren olio eta akuarelak. Saikin tabernan.

Tolosa. Rufino de Tororen margolanak Sorron koadro dendan.

Tolosa. Alberto Letamendiren koadroak Fronton kafetegian.

Tolosa. *Sudurrak. Naturako usain gozoez* Aranburu Jauregian urtarrilaren 15a bitarte. Tolosako Udalak eta La Caixa Fundazioak antolatuta.

KIROLA

Asteasu. Nazioarteko VI. Ziklo-kros Proba 10:15ean.

Tolosa. Jose Antonio Insaustiren oroimenezko Erregetako Xake Txapelketa. 10:00etan Aurrera elkartean.

Tolosa. Eguberrietako XXIII. Shanti Torneoko finalak. Berazubi kiroldegian 10:00etan.

MUSIKA

Anoeta. Txistulari taldearen kalejira 12:00etan.

Tolosa. Udal Txistulari Banda eta Musika Bandaren kontzertua. Musika Eskolan 12:30ean.

ZINEMA

Tolosa. *El maquinista.* Leidor zinemari 17:00etan, 19:30ean eta 22:30ean.

Eta orain... aldizkaria

TOLOSA ▶ Bonbereneak argitalpen bat kaleratu berri du antolatzen dituen ekitaldien berri emateko; hurrengoa apirilean aterako dute



Bonberenea etxean era guztietako ekitaldiak antolatzen dituzte urte osoan zehar: kontzertuak, hitzaldiak, ikastaroak, grabazioak... HITZA

ERREDAKZIOA

Bonbereneak indarra, kementa, lanerako gogoia eta abilezia erakutsi du berriro. Oraingo honetan *Infobonberenea* izeneko argitalpen bat kaleratu du, bere etxean egin duten guztiaren berri ematen, orain artekoak eta heremendik aurrerakoak

Argitalpenak egunkari formatoa du, zortzi orrialde ditu eta guztiak koloretan dira. Gehienbat euskaraz dago, gaztelaniazko testu batzuk ere tar-

tekatuz. Diseinu bizi eta erakargarria du gainera. Lana ez dute nolana egin.

Azalean bost urte bete dituztela gogora ekarri du *Infobonbereneak*, aurkibide txiki batekin batera.

Barruan berriz, www.bonberenea.com webgunea berritu dutela eta ingelesez eta gaztelaniazko bertsioak izango direla aurreratzen dute. Lobo electrico taldearen Japoniako bira azaltzen du argitalpenak. Azkenaldian Bonberenean izan diren emanaldien argazkiak

ere jaso ditu: Kike Amonarriz, Ruper Ordorika, Patxi Zabaleta eta Karlos Garaikoetxea, Su ta Gar, Evaristo, Pirritx eta Porrotx eta May Gorostiaga.

Erdiko orrialdeetan etxearen berri ematen du, dituen atalak eta eskaintzak agertuz: disketxea, grabazio estudioa, rockodromoa, skate park-a... Bostgurren urteurreneko txaranga eta bazkariaren berri ere ematen du.

Gorka Urbizu eta Imanol Ubedak osatutako Peiremans+bikoteak udaberriko diskoa

eta Izaera musika taldea aurkeztu dituzte aldizkari honetan. Izandako musikariek utzi dituzten mezuak eta iritziak ere jaso dituzte.

Bukatzeko, datozen hilabeteetako agendaren aurrerapena ere egin dute argitalpen honetan. Hurrengo info apirilean aterako dutela iragarri dute Bonbereneakoek.


Etenik gabe aurrera doaz gazte martxoso hauek. 2005ean ere zeresana emango dute eskualdeko kultur munduan.

ZORION AGURRAK ▶

Urtebetetzea, jaiotza, urrezko etzeiak, agurrak... hemen argitaratzeko etorri HITZAren egoitzara; ekarri argazkia



URTE ASKOAN
Epifania Matxinea
(Villabona). Zorionak izeba. Ondoa pasatu Bakarbo eta Milaren partez.



URTE ASKOAN
Julen Atxukarro (Lekunberri). Gaur 6 urte. Zorionak amona eta Bakarboaren partez. Ongi pasatu.



URTE ASKOAN
Ana Jesus Argote (Belauntza). Gaur 23 urte. Zorionak etxekoan partetik.



URTE ASKOAN
Ane (Tolosa). Gaur 2 urte. Zorionak eta muxu bat familiaren partetik.



ZORIONAK
Maddi. Gaur urtebete. Muxu handi bat aitabakoren eta amabakoren partetik.